

Galtzaundi



ESKUALDEA: Urkizu eta Bedaio ezagutzeko gidak » Bedaiotarren bizi kalitatea hobetzen

MEMORIA DANTZAN: Ekainak 5, ekitaldia kiraldegian **KULTURA:** Martxaundiko

parte hartzaileak estudioan **KIROL SALTSA:** Usabal mahai tenis taldea ezagutuz

ELKARRIZKETA: Joaquin Urio Velazquez, futboleko epaile ohia

*Eskola txikiak, elkartu,
ospatu eta aldarrikatu*



Hernani BHI

A. Iturriaga - K. Labaka

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

ELEKTRIZITATEA

- Instalazio elektriko eta automatikoak (erdi maila)
- Instalazio elektroteknikoak (goi maila)

MEKANIKA

- Mekanizazioa (Erdi maila)
- Proiektu mekanikoen garapena (delineazio mekanikoa) (goi maila)



A. ITURRIAGA - Santa Barbara auzoa z/g - Tel.: 943 551 188 - Faxe: 943 552 271

K. LABAKA - Karmelo Labaka 7 - Tel.: 943 551958 - Faxe: 943 330 550

e-mail: institutua@hernanibhi.com - www.hernanibhi.com - 20120 HERNANI

Aurrematrikula epea: Ekainaren 1etik 12ra



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea,
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefona: 943 655 004

Faxa: 943 654 983

e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com

Webgunea: www.galtzaundi.com

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Amieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Iñigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Exarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarteak, Amaia Goikoetxea Orbeagozo.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banatzaileak: Oihana Sanchez,
Juankar Arregi.

Idazkaria: Edurne Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirrezabala.

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta
Maddi Trutxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Aitzo, Amezketza, Anoeta, Balianrain, Belsauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Otxa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta inzien erantzukizunik.



zerbitzua eta lana
euskaraz



Aldizkari honek Gipuzkoako
Foru Aldundiren laguntza
jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosaldeko Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

IRITZIAREN LEIHOA

- Ibon Artola: Krisiaren aurka bankuen, enpresa handien eta krisian dauden enpresen esropiazioa langileen kontrolpean!
- Elixabet Eizagirre: Udan ere Tolosaldea Sahararekin

4-5 orrialdeak

NORMALIZAZIO ATALA



6. orrialdea

ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Urkizu eta Bedaio ezagutzeko gidak
- Bedaio, gero eta bizigune atseginagoa

11-13 orrialdeak

Galtzaundi 303

2009ko ekainaren 5a

Ibon Artola eta Elixabet Eizagirre	4-5
Eskualdeko albistekak:	
Urkizu eta Bedaio ezagutzeko gidak	11
Bedaio, gero eta bizigune atseginagoa	12-13
Memoria Dantzan	18-19
Martxaundiko parte hartzaileak estudioan	20-21
Kirol saltsa: Usabal Mahai Tennis taldea ezagutzen	22-23

ERREPORTAIA

Ekainak 14, Eskola Txikien jaia Berrobin



7-10 orrialdeak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutako argitalpena

ELKARRIZKETA

“Jendea FIFAz eta UEFAz kexatzen da, baina batzorde horiengandik arbitroak babes osoa izaten du. Baina hanka sartuz gero, ondorioak ere berehalaxe jasoko ditu. Ez da hemen bezala arbitroa bi partidarako kentzen; agian, mailaz jaitsiko dute. Hemen ez bezala, epaile batek jokalaria kanporatzen badu, bi erakunde horiek arbitroari babes osoa emango diote. Hemengo Lehiaketa Batzordeen jokaera katxondeo hutsa da.”

- Joaquin Urio Velazquez, futboleko epaile ohia

13-15. orrialdea



KRISIAREN AURKA BANKUEN, ENPRESA HANDIEN ETA KRISIAN DAUDEN ENPRESEN ESPROPIAZIOA LANGILEEN KONTROLPEAN!!

IBON ARTOLA

Euskal Herria sozialista aldizkariko kidea

Patronalak egiten ari diren eskaerek agerian uzten dituzte burgesiaren helburuak: soldaten izoztea, kaleratzen merkatzea, negozio kolektiboaren suntsiketa, enpresarien zergen eta kotizazio sozialen murriztea eta gastu publikoaren murriztea, osasun eta hezkuntza. Neurri guzti hauek aurrera atera arte burgesiak ez du amore emango.

Burgesiak gustukoa du "bake sozialak" ematen duen egonkortasun politiko eta ekonomikoa, baina aldi berean, bere interesak defendatzeko oinarritzakoak diren eskaerek gatazka sozialak areagotuko dituzte. Beldurra diote klaseko borrokaren intentsifikazioari, baina aldi berean badakite ez direla gai gatazka sozialen gorakada ekiditeko. Epe motzera behintzat, burgesiaren helburua langileen borroka atzeratzea eta langileak "akordio sozialekin" engainatzea izango da. Krisi garai guztietan gertatu den bezala, burgesiak ezkerreko sindikatu eta alderdi batzuren inplikazioa behar du "akordio sozial" hauek aurrera ateratzeko, langileak desmoralizatzen eta hauen errebindikazio-

ei legitimitatea kentzeko. Azpikeria honek arrakasta lortu dezan, kapitalistek "sakrifizioen" bat onartu dutela antzeztuko dute, langileen eta kapitalisten arteko mota honetako akordioetan beti gertatzen den bezala. Baina langileen sakrifizioak konkretuak izaten diren bitartean, kapitalisten adierazpen politetan geratzen dira.

Hala ere, gaur egungo egoera politiko eta sozialean, kapitalisten amarru eta mugimenduak ez dira erraz sinetsiak izango eta ez dituzte gatazka sozialak ekidingo. Gainera, maniobra zikin hauetan parte hartzea auzartzen diren ezkerreko sindikatu eta alderdietako zuzendaritzek langileen haserre lortuko dute eta honek egoera gehiago asalatu dezake. Gobernuak, agintari sindikal erreformistek eta patronalek "akordio sozialak" bultzatuko dituzte, baina akordio hauek onartzearen zailtasuna ez dago sindikalista eta politikari erreformisten borondatean, langile klasearen eta gazteriaren ondoez sakonean baizik. Egonkortasunaren eta langileen aurkako erasoaren artean nolabaiteko oreka bat lortu nahi duten arren, azkenean oreka

hau hautsi egingo da. Dagoeneko, hausten hasi da.

Langileen eta herritarren zati garrantzitsu batek ikusiko du, gehiengoaren aurkako erasoak geratzeko modu bakarra patronalei eta gobernuei aurre egitea dela. Euskal Herrian ere asko handitu da langile borroken kopurua. Baina orain arte, borroka gehienak, enpresa bakoitzeko langileek beren aldetik egindakoak izan dira. Errealitatea ordea erakusten ari da enpresaz enpresako borroka ez direla nahikoa lanpostuak eta soldatak defendatzeko. Beharrezkoa da langileen borroka koordinatzea eta elkartzea. Bide honetan, oso pauso garrantzitsua izan zen maiatzaren 21eko greba orokorra. Patronala, Eusko Jaurlaritza eta komunikabideen gehiengoa greba orokorreko datuak manipulatu ziren arren, ezin dute deuseztatu maiatzaren 21ak milaka eta milaka langileren kontzientzietan izan zuen eragina. Greba orokorrak milaka langileri erakutsi dio nolako botere itzela dagoen beren eskuetan. Kapitalisten eta langileen arteko borrokan abantail ikaragarri bat dute langileek: beren kopurua eta beren pa-

Errealitatea ordea erakusten ari da enpresaz enpresako borroka ez direla nahikoa lanpostuak eta soldatak defendatzeko. Beharrezkoa da langileen borroka koordinatzea eta elkartzea

pera ekoizpenean. Langileek makinak, garraioak, zerbitzuak... geratzen badituzte, gizarte kapitalistak ez du funtzionatzen. Enpresariak ez dute zer eginik. Baina langile klasearen potentzial ikaragarri hau kanalizatzeko beharrezkoa da langileak programa iraultzaile batekin antolatzea. Soldata jaitsieren, kaleratzen eta EREen aurkako borrokan, krisian dauden enpresen, bankuen eta enpresa handien espropiazioa defendatzea beharrezkoa da krisi honi aurre egiteko. Langileek ekoizteko baliabideak kontrolatzen dituztenean bakarrik izango da posible hauek gizarteko gehiengoaren onerako erabiltzea. Gizarte sozialista batak bakarrik bermatu ditzake lortutako konkistak betirako izatea, eta behin betirako krisiekin, langabeziarekin eta pobreziarekin amaitzea. ■

ARTESANIA
**ZUEN
TZART**
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359


**ARTE
TAILERRA**
HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana: marrazketa,
margoak, eskultura.

Tolosa - Kale Nagusia, 16 - Tlf. 677 340 685

Eskolapietako Lorategiak, 1
20.400 Tolosa
Tlfno. 943 674526

**Irudi
ILEAPAINDEGIA**



UDAN ERE TOLOSALDEA SAHARAREKIN

ELIXABET IZAGIRRE

Tolosaldea Sahararekin Elkarteko kidea

Mendebaldeko Sahara koga ez dute ahaztu, hainbat pertsonak, erakundeak eta gobernuek zokoratu egin dute. Horiek guztiek begiak ixten dituzte, Saharar herriari egunez egun giza eskubideak ukatzen zaizkiola ez ikusteko; belarriak estaltzen dituzte, gai horretan erantzukizunak eskatzen duen gizarte aldarria ez entzuteko; eta ahoa ixten dute, esaten dutenarekin zapaltzailea ez mintzeko.

Saharar herria bizirik dago, eta bizirik egongo da itxaropenari eusten laguntzen diegun bitartean. Euskal Herrian, hiri eta herri bakoitzean, elkarte eta batzorde ugari gogorazten diete beraiekin gaudela. Gure elkartasunak ez duela baldintzarik. Hain desberdinak izanik eta hain urrun egonik ere, haien berdina eta haiengandik hurbil sentitzen gara.

Tolosaldea Sahararekin Mendebaldeko Sahararekin konprometituta eta lotuta dago arlo guztietan, Saharar herriari egun bakoitza zapalkuntzaren azkena izan daitekeen itxaropenarekin bizitzen laguntzeko, eta ba-

liabide materialak emateko, justiziaren, kulturaren, osasunaren, hezkuntzaren, gizarte laguntzaren eta nekazaritzaren arloko zereginak bete ahal izan ditzaten. Azken batean, bizirik jarrai dezaten.

Marokoko erresumak Espainiako erresumaren konplizitatearekin ezartzen duen zapalkuntza dela eta, bizirik irautea garaipen handia da saharar herriarentzat. Guztiz gaitzesgarria da ikustea Espainiako gobernuek, Nazio Batuetan ordezkaturako nazioarteko komunitatearekin batera, Marokoko erregimen ez demokratikoak ezarritako traba geopolitikoari kasurik egiten ez diotela ikustea.

Afrikako leku hori, hondarra kiskaltzen eta hodeiertzean amaitzen den leku hori, herri zapaldu, pobretu eta zigortu baten etxea da, errespetua eskatzen duen herri baten etxea. Tolosaldea Sahararekin elkarteak tinko jarraituko dio bere ekintzen leinari.

Guk Tolosaldea Sahararekin taldeetik ahal dugun neurrian bertako berrien larritasunaz ohartarazi nahi dugu eta gure gaitzespen irmoena adierazi. Testu-

guru honetan kokatzen ditugu aurreko asteetan Tolosaldean burutu dugun Maiatza Borrokan ekimena, non hainbat ekintzen artean gatazkaren oraingo parametroak kokatzen lagundu diguten hitzaldi sorta bat eskeini ditugun hainbat adituren eskutik: Marokoko erregimenak lurralde okupatuetako baliabide naturalen legez kanpoko ustiakuntzaz Western Sahara Resource Watch (WSRW) kide baten eskutik, egoera politikoari eta balizko irtenbideei buruz GAIN taldeko Txente Rekondo adituarekin edo Mendebaldeko Sahararen iragan kulturalari hurbilpena Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Andoni Saenz de Buruaga irakaslearekin. Ihardunaldi hauek iragan maiatzaren 20ean, fronte polisarioak lehen ekintza armatua burutu zueneko 36. urteurrenean amaitu genituen jadanik ohiko eta laster errealtate bihurtzea nahi genukeen aldarriarekin.

Maroko Saharatik at, autodeterminazioa eta independentzia mendebaldeko Sahararentzat ihardunaldiak igarota "Oporrak Bakean" programari eman diogu sa-

"Guk Tolosaldea Sahararekin taldeetik ahal dugun neurrian bertako berrien larritasunaz ohartarazi nahi dugu eta gure gaitzespen irmoena adierazi. Testuinguru honetan kokatzen ditugu aurreko asteetan Tolosaldean burutu dugun Maiatza Borrokan ekimena"

rrera. Honen baitan errefuxiatu kanpamentuetatik eratorritako haur sahararrak, desertuko egoera, klima, beroaz.... ihesik bi hilabete egongo dira gure artean. Haur hauei euskal familiek emango diete babes, hauek izango baitira haur sahararren udako famili. Haurrengan milaka onura ekartzeaz gain bi familien, bi herrien, bi kulturen, bi gizarteen, bi errealtateen.... arteko lotura gertatuko da. Proiektu honi buruzko informazio zabalagoa eskainiko dizuegu Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideok. Gurekin harremanetan jartzeko tolosaldeasahararekin@gmail.com edota 654407200. ■

ARALAR KIROLAK

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916




IRASTORZA GARRAIOAK



Iruñea etorbidea, 14A • Usabal industrialdea
P.K. 209 Tolosa • Tel.: 943 670 248 • Faxe: 943 671 865

semaforoak euskaraz





Eskola Txikiak, familia handia

EKAINAREN 14AN, BERROBIN OSPATUKO DA ESKOLA TXIKIEN JAIA

Leire Zubeldia

Berrobiko San Andres eskolan egin du hitzordua Galtzaundik. Oraindik berri usaina du eraikinak. Milla Arrondo, eskolako idazkariak eta tutoreak egin dio harreka Galtzaundiri. “Duela hiru urte egin genuen eraikin berria. Oso gustura gaude, baina ez pentsa lekua sobran dugunik!”, adierazi du txantxetan bezala, baina serio. Eraikin berriak, eskolako zerbitzu guztiak leku berean biltzeko bidea eman diete, eta baita zerbitzu gehiago emateko modua ere. “Adibidez, lehen ez genuen informatika, musika edo psikomotritate

“Eskola txikiak bizirik herri eta auzo txikiak bizirik”. Hori da Eskola Txikien lema, eta lelo horixe zabalduko dute lau haizetara ekainaren 14an Berrobin ospatuko den Eskola Txikien jaietan. Bertan bilduko da Eskola Txikien familia handia. Berrobiko San Andres herri eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek egingo dituzte anfitrioi lanak. Ospakizunaren aitzakian hurbildu da Galtzaundi eskola txikira euren egoera ezagutzeko asmoz.

gelarik. Atsedean garaian, ikasleek frontoira joan behar izaten zuten jolastera; orain, patio zabala daukagu. Eta jantxela eraikinean bertan edukitzea ere abantaila izugarria da”. Agurne Renobales, San Andres ikastetxeko zuzendari eta tutoreak berretsi egin du lankideak esandakoa: “Eraikin berriak lana izugarri erraztu digu”.

Egun, 47 ikasle eta 8 irakasle ditu Berrobiko eskolak. Lau gelatan banatuta daude: Haur Hezkuntzan 2 gela dituzte; 2 eta 3 urtekoena eta 4 eta 5 urtekoena. Lehen Hezkuntzako ikasleak ere bi unitatetan banatuta daude; 1, 2 eta 3. mailakoak gela batean, eta 4, 5 eta 6. mailakoak bestean. Azkenik, haurreskola dago, 0 eta 2 urte arteko haurrentzat. “Es-

kola txikia da gurea, familia-txo bat osatzen dugu”.

ESKOLA ETA HERRIA, ELKARLANEAN

Txirrinak jo eta ikasleak etxera joan dira eguneko jarduna amaituta. Baina eskola ez da hutsik geratu. Galtzaundi eta elkarrizketatuz gain, guraso talde bat hurbildu da eraikinera: Ekainaren 14an ospatuko den jai handia prestatzeko azken ukituak egiten ari dira. “Antolaketa lanak ikasturte osoa iraun dute. Urrian hasi ginen lehenengo bilerak egiten. Gero batzorde ezberdinetan banatuta egin dugu lan. Jaiaren bezperatan, batzorde guztiak bilduta ari

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

gara azken ukituak ematen". Ikasleak, irakasleak eta gurasoak, denak aritu dira burubelarri. "Baina gehien bat gurasoak", esan du Arrondok, "eurek hartu dute ardura guztia. Hori bai, herriari ere eskatu zaio laguntza. 34 familia bakarrik ziren guztia antolatzeko". Berrobiko Udalaren lana ere aitortu nahi izan dute. Zuzendariaren hitzetan, "ez festa antolatzeko orduan soilik. Adibidez, udala mugitu izan ez balitz eraikin berri hau egitea ez zen posible izango". Hain zuzen ere, hori da eskola txikien ezaugarri nagusienetako bat: Eguneroko elkarlana, eskola, gurasoak eta udalaren artean. Ixabel Lakuntza, Eskola Txikieta-koko-

ordinatzailea da, eta bera ere mahaiaren ingurura gonbidatu dugu. Bere hitzetan, elkarlan hori ezinbestekoa da Eskola Txikiak sortu eta aurrera egin dezaten: "Eskolen maparen dekretu berrian aipatu egiten da hori: Eskola Txiki bat zabaltzeko gutxienerako baldintza batzuk eskatzen dira. Bada, baldintza horiek, moldatu egin daitezke herrian da goen inplikazioaren arabera". Lakuntzak Larraulgo adibidea jarri du: "Aurten jarri dute Larraulgo eskola martxan. Asteasuko herri ikastetxeko gela bat ekarri zuten herrira. Izugarrizko saiakera egiten dute gela horri eskola izaera emateko, eta azkenean lortu dute! Hori guztia lortzeko, beharrezkoa izan da gurasoen eta irakasleen inplikazioa".

Herriak ematen dio

sostengua eskolari, eta eskolak bizia ematen dio herriari. "Haurrentzako oso ona da herrian ikatea. Baina herriarentzat ere oso aberasgarria da hori, bizia ematen baitio". Berrobiko eskola bera da horren adibide: "Herriko ekintza guztiak eskolan egiten dira: Aerobic-a, judoa, hitzaldiak... Gainera, eskolako patioa ere irekita egoten da". Azken batean, herriko eragile aktiboa da eskola.

ELKAR EZAGUTU BAKARRIK EZ EGOTEKO

Berrobin, ekainaren 14an ospatuko den Eskola Txikien festak hiru funtzio dituela esan daiteke: Nagusiki ospakizun bat da. Bestetik, Euskal Herriko Eskola Txikietako irakasle, ikasle eta gurasoak elkartzeko aitzakia ere bada. Eta azkenik, aldarrikapen kutsu bat ere badu Ixabelen hitzetan, "Eskola Txikiak ga-

"Berrobiko eskola txikia, azpiegitura aldetik oso ondo hornituta dago, eta padagogikoki punta-puntako zentrua da."

**IXABEL
LAKUNTZA**

rela, baina talde handi bat osatzen dugula erakutsi eta hemen gaudela esateko".

Lehenengo festa 1988. urtean egin zen Bidegoianen. "Eskola Txikien duintasuna aldarrikatzeko hasi ginen festarekin". Bidegoiango hitzorduaren ostean hasi ziren Euskal Herriko Eskola Txikiak elkartzen eta batera lan egiten mintegien eta abarren bidez.

Festa handiaz gain ordea, Eskola Txikiek badituzte elkargune gehiago. Kirol Topaketak, elkarrekin sortzen dituzten blogak... Eskola Txikiek argi dute elkarren artean harremana izan behar dutela. Berrobiko eskola esaterako, Lizartza eta Berastegiko ikastetxeekin elkartzen da maiz: Irteerak egiten dituzte elkarrekin, edota eskolara gonbidatzen dituzte. "Inguruko Eskola Txikietako ikasleak elkar ezagutu dezaten saiatzen gara. Honek badu arrazoi bat: Ikasleek Lehen Hezkuntza amaitzen dutenean Tolosako Orixe Institutura joaten dira. Aurten, Berrobitik bi joango dira Orixera. Hauek ordea, inguruko eskola txikietan dabilzan beren adineko ikasleak ezagutzen dituzte, eta ez dira bakarrik geratuko", azaldu du Renobalesek. Orain artean esperientzia ona izan dute herri-rik eskualde-burura joaten diren ikasleekin. "Oso gustura daude. Ez dute arazorik eduki, ez akademikoki eta ez-



ta lagunak egiteko orduan ere". Ixabel Lakuntzak ohartarazi du, Berrobiko San Andres eskola eredu dela maila askotan: "Azpiegitura aldetik oso ondo hornituta dago, eta pedagogia aldetik, puntapuntako zentrua da Berrobikoa".

METODOLOGIA ETA PEDAGOGIA PROPIOA

Eskola Txikien bereizgarritasun nabarmenena da, adin ezberdinetako ikasleak ikasgela berean egotea. Boteprontoan begiratuta, irakasteko orduan zailtasunak ekar ditzakeela pentsa daiteke. Baina neurri honek, oztupoak baino gehiago abantailak ekarri ditu Eskola Txikietara. "Adin bat baino gehiagoko ikasleak gela berean edukita, testu liburuekin irakastea oso zaila da. Beraz, honek beste bide batzuk jorraztera behartu gaitu. Duela urte batzuk mintegi batean hasi ziren bide egokia zein izan zitekeen aztertzen; ikuspegi eraikitzailean topatu zuten bide hori". Elena Laiz irakasleak zuzentzen ditu mintegi horiek, eta Eskola Txikietako irakasleek hartzen dute parte bertan. "Berrobiko irakasle guztiok, txandan-txandan parte hartu dugu mintegietan. Proiektuak egiten ditugu, eta proiektu horien bidez ematen ditugu eskolak. Soilik matematiketan erabiltzen ditugu testuliburuak".

Era hontan lan eginez, Eskola Txikiek euren lan sistema eta metodologia propioa eskuratu dute. Gainera, sistema honen bidez, irakasgaia ez ezik, bestelako trebetasunak ere lantzen ditu ikasleak: "Handiak eta txikiak elkarrekin egotean, handiak txikiari azalpenak emateko gaitasuna lantzen da, baita elkarbizitza, elkarrekiko errespetua eta barere".




Ixabel Lakuntza, Mila Arrondo eta Agurne Renobales Eskola Txikien kartela eta lekuoarekin.

BETI ADMINISTRAZIOAREN ATZETIK

Ikusi dugunez txikia izateak baditu bere abantailak; baina baita oztupoak ere. Haur txikiak irakaslearen atzetik bezala, hatza altxata ibili behar izaten dute administrazioarekin. "Ateratzen dituzten dekretu guztiak eskola handietarako pentsatuta daude. Guk ohartarazi behar izaten diegu beti, gure egoera berezia dela". Ohartarazpena onartu egiten du administrazioak, baina beti momentuko neurriekin bideratzen dute egoera. "Baina ez dugu arau berri bat ateratzen den aldiro egokitu gaitzkeen edo ez begiratzen ibili nahi. Eskola Txikiei estatus bat eman diezagutela eskatzen dugu, eta har gaitzabela kontutan dekretuak egiterakoan". Hori lortzeko dago oraindik, baina urte hauetan lorpen ugari bildu dituzte:

"Egungo arazorik handienetakoa irakasleen ezegonkortasuna da", azaldu du Milak. Berrobin sei irakastetik bostek behin betiko postua dute. "Horrek izugarriko egonkortasuna ematen dio klaustroari, eta eskolaren martxari". Baina hau ez da Eskola Txiki guztien egoera, ez da gutxiago ere. "Gertatu izan da eskola bateko klaustro osoa aldatzea. Horrek izugarriko ezegonkortasuna sortzen du. Administrazioak ere ulertu zuen eskola batek ezin duela egoera horretan funtzionatu. Honela, ordezkoi irakasleei proiektu bat aurkeztu eta zerbitzu eginkizunetan eskolan geratzeko aukera emateko zenbait plaza

atera ziren. Urtero egiten da balorazio bat eskolan jarraitzeko aukera emanez". Ixabel Lakuntzaren hitzetan, salto handia izan da hori. Izan ere, oso nekeza da kurtso hasieran eskolara datorren irakasleari Eskola Txikien funtzionamendua erakustea. "Unibertsitatean, irakasle ikasketak egiten dituztenei ez zaie Eskola Txikien metodologiaren berri ematen. Diplomatu gehienek ez dakite ezer Eskola Txikien inguruan, ez bada Eskola Txikiko ikaslea izan. Gehienez, ikuspegi eraikitzailearen inguruan zerbait jakin dezakete, baina ezer gutxi". Hori da Eskola Txikiek aurrean duten beste erronka bat: Unibertsitate istea. Lorpen hau ere



gero eta gertuago dute: Bologna martxan jartzen denean hau ere funtzionatzen has-tea espero dute.

FORMAZIOA MATENTZEA ERRONKA

Eskola Txikien etorkizuneko erronketaz hitz egiten hasita, guztien gainerik bat aipatu dute: “Gure formazioa mantentzea”. Irakasleen formazioa Elena Laizek ematen du lehen aipatutako mintegien bidez. “Trebatzeko era hau momentuko irtenbide bezala eman zigun administrazioak. Batetik, guk eskaera egin genuen, eta Elenaren egoera pertsonala ere berezia zen. Bi gauza horiek uztartuta eman ziguten aukera”. Bi urtetako denbora eman zieten, eta orain, epe horren amaieran daude. “Guretzat ezinbestekoa da formazio honekin jarraitzea”, dio Lakuntzak. Horretan ari dira orain burubela-ri.

Baina egun batez sikiera, lanak alde batera utzi, eta Eskola Txikiak Berrobin elkartuko dira, orain arte lortutakoak ospatzeko, eta euren indarra erakusteko. Euren txikitasunean handia baita Eskola Txikien familia. ■

Eskola Txikien festa Ekainak 14 Berrobi

10:30
Ongi etorria eta festaren hasiera.

11:00 – 13:00
Jokoak eta karaokea.

13:30 – 14:00
Lekuko aldaketa. Datorren urtean Altzoko eskolak antolatuko du jaia.

14:00
Bazkaria (frontoian).

16:30 – 18:00
Pirritx eta Porrotxen emanaldia.

17:15 – 18:00
Motozerraz egindako taila.

18:00 – 19:00
Festari amaiera emateko herriko gazteen trikitixa erromeria. Bestelakoak: Goizeko 11etatik aurrera goiz eta arratsalde: Puzgarriak. Erakusketa digitala eskolan. Zaldi paseok Errota eta Lapatza bitartean. Tailako tailer erakusketa. Tailerrak...

antza

TOLOSA >>> ESKUALDETIK KANPORA BI AUZOAK EZAGUTARAZTEKO HELBURUAREKIN ATERA DITUZTE GIDAK

Urkizu eta Bedaio ezagutzeko gidak

Urkizun eta Bedaion, joan den hilabetean aurkeztu zituzten Tolosaldea Tour, Tolosako Udala eta bi auzoetako elkarteek elkarlanean ateratako gidak. Era honetan, bi auzoak eskualdetik haratago ezagutarazi nahi dituzte; bai batean eta bai bestean, badagoelako zer ikusi eta zer egin.

Leire Zubeldia

Eskualdetik kanpora, leku ezezagunak izan arren, Urkizu eta Bedaio aisialdirako gune interesgarriak dira: Biak ala biak natur-ingurune zoragarriak kokaturik daude; eraikin adierazgarriak dituzte; historiako pasarte bitxiak, eta pertsonaia bereziak. Hauek denak bildu dituzte gidan.

URKIZU, ERNIO MAGALEAN

Behera begiratuta Oria harana ikus daiteke, eta gora begiratuta aldiz, Ernio mendikatea. Kokalekuagatik, mendizale askoren abiapuntua da Urkizu. Mendikute, Erniozabal eta Ernioaldera joateko ibilbide atseginak eskaintzen ditu. Hain zuzen ere, Tolosako auzo honetatik abiatzen diren mendi ibilaldiek tarte handia

dute gidan. PR-GI 114 ibilbidea da proposatzen denetako bat; Montesku auzotik abiatu eta Urkizu helmuga duena. 11 km pasatxo dituen ibilaldi honetan gainera, elur-zuloa ikusi eta San Zipirio ermita ezagutu daiteke.

Gidan ematen dira aipatutako bi elementu hauen gaineko jakingarriak: Urkizuk ongi baliatu ditu basoak ematen dituen lehengaiak. Egurra, ikatza eta kareaz gain, basoan egindako elur-zuloaren bidez, izotza lortzen zuten. Egun ezezaguna den teknika honen lekuko aparta da Urkizuko basoan mantentzen duten zuloa. Bestalde, inguru honetan daude San Zipirio ermitaren hondakinak. 1576. urtean eraiki zen harpe handi baten gainean. Gaur, bi horma besterik ez dira geratzen.

Aipatutako ermitaz gain, Urkizuk San Pedro eliza du. Auzoaren kaskoan kokaturik dago XVI mendeko eliza. Honen ondoan estalitako frontoia dago, auzoko ekin-tza ugariren gunea. Elizarekin batera, Urkizugoikoa etxea beste eraikin adierazgarri bat da: Balore handia du, bai historikoki eta baita arkitektonikoki ere. XVI. mendeko dorretxea da, eta pertsonai esanguratsuen jaiotetxea.

BEDAIO, ARALARKO ATEAN

Aralarko Parke Naturalaren barruan egonik, ingurunea da Bedaioaren bereizgarri nagusienetako bat. Bertan daude baita ere Gipuzkoako baserririk ikusgarrienak:

Gurbillaundia baserria esaterako, Gipuzkoako baserririk handiena da. Egun, sei etxebizitzako eraikina da, erdian partio errektangular bat duela. Historian zehar, kartzela eta kuartel funtzioak ere bete ditu. Zugastibarrera baserria berriz arkitektura tradizionalaren erakuslea da; Bedaioko eraiki-

nik zaharrena. 1544. urtekoa da, Errota baserria. Oraindik funtzionamenduan dago.

Urkizuren antzera, Bedaio ere mendi ibilaldi ezberdinen abiapuntua da. Balerdi eta Artubi tontorrez gain, Bedaio inguratzen duen PR-GI-112 bidea (7.7km), San Inazioaren ibilaldia (45 km) eta Aralarko itzulua (43.5) egin daitezke besteak beste. Bedaio eta Nafarroako Azkarate lotzen dituen Zarateko lepoa ere ibiltzeko gune atsegina izan daiteke: Inguru hau, kontrabandoaren lekukoa izan da.




Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499

Gozotegia Okindegia
ECEIZA
P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

TOLOSA >>> AZPIEGITURA ETA ZERBITZU ALDETIK AURRERAPEN HANDIAK EGIN DITUZTE AZKEN URTEETAN, BERTAKOEN B

Bedaio, gero eta bizigune atsegina

Natur ingurune zoragarrian kokaturik dago Bedaio. Inguruneak berak atsegingarri egiten du auzoa. Orain are eta atseginagoa da, Artubi Elkarte eta Udalaren arteko harremanaren bidez, azpiegiturak sendotu eta zerbitzu berriak jarri baitituzte, bertakoen bizi kalitatea hobetuz. Galtzaundi Bedaiora gerturatu da aurrerapen horiek ezagutzeko.

Leire Zubeldia

Betidanik, Artubi elkartetik biderratu izan dituzte bedaiotarrek Tolosako Udalarekiko hartu-emanak. Ur-

tero elkarteko zuzendaritza aldatzean, udaletxearekin harremana mantentzeaz arduratzen ziren pertsonak ere aldatu egiten ziren, lanak aurrera eramatea zailduz. 2006. urtean, Jon eta Nekane bedaiotarrek hartu zuten Udala eta auzoaren arteko lokarria izateko ardura. Berpiztuz planaren bidez aritu dira lanean. “Baina hemen zerbait lortu bada, auzotar guztiak inplikatu garelako da. Denek egin dugu lan”, azaldu du Nekane. Helduek, gazteek, haurrek eta adinekoek, ahal izan duten neurrian lagundu dute. “Azoka egin genuenean adinduek jarri zituzten postuak, haurrek ere laguntzen digute, baita herritik kanpora bizitzera joandako gazteak

ere”. Egindako lanaren fruituak ari dira pixkanaka Bedaiora iristen.

AZPIEGITURAK SENDOTZEN

Batetik, Telebista TDT bidez ikusi ahal izateko azpiegitura jarri dute. Internetera konexioa ere bai. Bestetik baserri guztiak seinaleztatu dituzte, buzoia berriak jartzearekin batera. Argiteria ere konpondu dute. “Festetan, edo ekintza-aren bat zegoen bakoitzean, argirik gabe geratzen ginen, nahikoa indar ez zegoela eta”. Hornidura arazo hori dute egun urarekin. “Bedaio-behekoan jarri dugu ur depositua, baina auzoaren kaxkoan ere beste bat beharko genuke. Jaietan gonbidatuak izaten ditugu etxean edo elkartean, eta

denentzat nahiko ur ez da egoten”, kontatu du arazoaren neurria zenbatekoa den adierazteko. Haurrentzako jolas-toki berri bat ere auzotarren eskakizunen barruan dago, “orain dagoena arriskutsua baita”. Gero, frontoia eta herri-bide batzuk konpontzeko beharra azpimarratu du. Oraindik estaltzeko zulo asko badaude ere, egindako hobekuntza guztiak nabaritzen dituzte auzoan.

GELA BALIOANITZA MARTXAN

Zerbitzuen alorrean, bi egitasmorekin ari dira lanean. Horietako bat martxan dago jada: Gela balioanitza. Hilaren 30ean, asteburu kulturalaren barruan inauguratu zuten. Txoko hau atontzea aspaldiko



Orain arte nekazal turismoa izan den Nagusi-Etxea erosi du Tolosako udalak.

IZI KALITATEA HOBETUZ

agoa

“Nagusi-Etxea Udalak erosi du eta orain zein erabilera eman aztertzen ari da”.

nahia zen bedaiotarrentzat. Artubi elkartearen goiko solairuan dago gela. Nekane kontatu digu nola sortu zen gela balioanitzaren ideia: “Tolosako liburutegian liburu kaxa batzuk sobran zituztela eta guri eskaini zizkiguten. Zenbait mahai ere eman zizkiguten eta hara! Zergatik ez dugu liburutegi bat jartzen?”. Bururatu eta egin. Gela balioanitza liburutegi bat baino gehiago da ordea: liburuak, futbolina eta joko ezberdinak edukitzeaz gain, telebista handi bat eta bi ordenagailu dituzte. “Auzoan antolatzen ditugun hitzaldi, tailer eta horrelakoak bertan egingo ditugu hemendik aurrera”.

Gela balioanitza hain txoko garrantzitsua izanik, bere irekiera ere modu berezi batean ospatu nahi izan dute. Hilaren 30ean, festa bat egin zuten: Txolarre Irratiak zuzeneko saio bat egin zuen bertan. Besteak beste, Aimar Irigoien harri-jasotzailea eta Abel Barriola pilotaria izan



Gela balioanitza asteburu kulturean inauguratu zuten.

ziren gonbidatu gisa. “Haurrei erakutsi nahi diegu zerbait lortzeko lana egin beharra dagoela, eta sakrifizio hori ondo irudikatzen dute gonbidatu hauek”. Bedaion bertan ere badituzte eredu baliagarriak.

NAGUSI-ETXEA BEDAIOTARRENTZAT

Inoiz Bedaioen egon denak gogoan izango du elizaren ondoan dagoen harrizko etxetzarra. Nagusi-Etxea da. Urtetan nekazal turismo moduan erabili dute. “Etxe polita da, handia, eta gainera kax-

koaren erdi-erdian dago; baina herriari ez dio ekarpenik egiten”. Bada, etxe hau Tolosako Udalak erosi du, eta orain, eman dakioken erabilera aztertzen ari dira. Auzotarrek proposamen bat egin diote udalari: “Asteburutan jatetxe zerbitzua ematea, eta astean zehar, eskola-haurrentzako eta bisitari taldeentzako aterpetxe funtzioak egitea. Auzotar bat prest dago arduraregain hartzeko”. Era honetan, Bedaio ezagutzera etortzen direnei gutxienez kafetxo bat atera ahal izango diete; zerbitzu bat eman. Gai-

nera, jatetxe eta aterpetxeak, Bedaio ezagutarazteko balio lukeela pentsatzen dute auzokoei. “Bedaion badago zer ikusi: Errota, Gurbillaundi baserria, (Gipuzkoako base-ririk handiena)... Bestalde, mendi ibilaldi askoren abiapuntua da eta Aralarreko Parke Naturalaren barruan dago. Bedaio ere Aralarreko sartzeko beste ate bat izan liteke”.

Guzti hau kontutan hartuta egin zioten proposamena Udalari. Aldi berean, Tolosaldea Garatzen azterketa bat egiten ari da. Erantzunaren zain daude bedaiotarrak. ■

Beti Añi
jaketxea

Garaian garaiko janariak eta arraikietan bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

KONTSULTA PSIKOLOGIKOA

Iñigo Ximénez
Psikologoa eta terapeuta gestaltikoa

Sta. M^a de la Asunción klinika

Balorazio psikologikoa:
ebaluazioa eta orientazioa
Psicoterapia prozesua

**ZABALA
DESGUAZEAK**

Kudeatzaile baimenduak EU2/111/04

Beotibar industrialdea, 18 - BELAUNTA
Tel./Faxa: 943 671 790 - Mugikorra: 696 593 347

Sartu eta Sortu arte tailerra, uztailean zabalik goiz eta arratsaldez

Haur eta helduentzat tailer ezberdinak eskainiko ditu uztailean

Urritik dago zabalik Sartu eta Sortu arte tailerra, Kale Nagusiko 16. zenbakian. Naiara Delgado, Arte Ederretan lizentziatua, da arduraduna. Bere proposamenak oso erantzun ona izan du: Kurtsoak aurrera egin ahala ikasleak gehitzen joan zaizkio. Ekainaren 29an, kurtsoan zehar egindako lanekin erakusketa zabalduko dute. Gero, sortzen jarraitu nahi duenak izango du horretarako aukera, uztailean irekita egongo baita tailerra, goiz eta arratsaldez.

Sartu eta Sortu arte tailerlean helburu batekin egiten dute lan Naiara Delgado eta bere ikasleak: “Sormena lantzea”. Ikasle bakoitza bere arazoak konpontzeko gai izatea nahi du Naiarak. “Emaitzari garrantzia kentzen saiatzen naiz. Arreta, sormenaren prozesuan jarri behar dela erakusten diet”.

SORTZEKO AUKERA GUZTIAK

Lau urtetik gorako haurrak eta helduak dira arte tailerrera hurbiltzen direnak. Haurrek, marrazketa, pintura eta eskultura lantzen dute. “Baina horretarako era guztietako materialak ditugu tailerlean: papera, plastikoa, kartoia, buzina, ohialak, berrerabiltzeko materialak...”. Tailer librea da. Hau da, bakoitzak gustuko duen hori egin dezake. “Ikasle bakoitzari jarraipena egiten diot, eta teknika ezberdinak erakusten joaten naiz”. Era honetan, lan ezberdin ugari egin dituzte: Inauterietako maskarak, buruhandiak, kamisetak... Eraikuntzak egiteko txoko bat ere badute. Ikasleen lanak, txandan-txandan erakusleihon jartzen dituzte ikusgai.

Sormenak ez du mugarik Sartu eta Sortun. Horren froga da, ikasle talde baten ekimena: “Antzerki bat egin behar dute. Inoiz ez nuen aurreikusi antzerkia lantzea, baina horretan ari gara”. Irakas-



leak, ikaslearen nahietara moldatzen du tailerra.

Helduak ere animatzen dira arte tailerlean izena ematera. “Gehien bat, marrazketa lantzea eskatu zidaten. Pixkanaka teknika ezberdinak erakusten dizkiet. Baina helduak haurrak baino beldurriagoak dira”. Zentzu horretan, Naiaren lana, ikasleak askatzea izan da.

UZTAILEAN ERE ZABALIK

Sortzen jarraitu nahi duenari aukera eman nahi dio Tolosako arte tailerrak. Horregatik, uztailean ere tailerra zabalduko du Naiarak.

“Urritik hona soilik arratsaldez eman ditut eskolak, baina uztailean goizez ere zabalduko dut”.

Haurrentzako arte tailerra, astelehen, asteazken eta ostiraletan izango da 10:00etatik 12:00etara. Edo nahiago izanez gero, astelehenetik ostegunera, 17:00etatik 19:00etara. Helduek berriz, astelehen eta asteazkenetan 15:00etatik 17:00etara izango dituzte eskolak. Bestela, astearteetan, 20:00etatik 22:00ak bitartean.

Guzti honetaz gain, uztaileko proposamen berri bat ere badute Sartu eta Sortun:

Sormen dantza. “Ana Irazus-tak emango ditu eskolak. Arte eta dantzaren uztarketa bat da. Marrazki bat egin, eta marrazki hori dantzaren bidez adieraztea da kontua”. Hasiera batean umeentzat aurreikusi dute tailer hau, baina helduek ere izena eman dezakete. Astearte eta ostegunetan 10:00etatik 12:00etara izango da. “Uztailean proba egingo dugu, eta gustatuz gero, kurtsoan zehar ere eskaini genezake”. Jendeak egiten dituen eskaerak entzuteko prest daude Sartu eta Sortun. Ate guztiak zabaltzen dizkiote sormenari. ■



"Arbitroak partida amaitutakoan badaki arbitraje ona egin duen edo ez".

Joaquin Urio Velazquez, arbitrajearen maisua

"ARBITROEK LEHIAKETA BATZORDEETATIK BABES HANDIAGO IZAN BEHARKO LUKETE"

Felix Aiestaran

Joaquin Urio Velazquez hogeita hamar urteko arbitrajearen izen ona ondo irabazia du: Guruzetak Gipuzkoari egokion lekua uztean, futbol ligako lehen mailako arbitro izendatu zuten eta bertan hamabost urte egin zituen. Bost urtetan nazioarteko epaile modura aritu zen. Aurretik, Realeko jubeniletako jokalaria izana zen eta beheko mailatan arbitraje lanetan bide luzea egin zuen. Lehen mailako futboleko ibilbide malarkatsuan denen begirunea irabazi eta lagun ugari egin zituen.

Gaur eguneko arbitraje profesionalak ez du zerikusiri

Joaquin Urio Velazquez (Donostia, 1947) hogeita bost urte bete arte Martutenen bizi izan zen, baina ezkondu ondoren Amarotzera etorri zen. Oso gustura dago bertan eta gogokoa du auzoaren bizitasuna. Tornulari lanetan aritua da, baina agente komertzial kolegiatua da duela 37 urtetik. Makina erreminta eta kirol gaiak eskainiaz lan egin izan du, baina gaur egun larrukiak banatzen ditu. Bere lanean banatzailearen izenak ez du saltzen, eskaintzen den produktuaren kalitateak baizik. Hala esan digu berak.

rik bere garaikoarekin. Lehen mailan arbitratuak partida bakoitzeko hiru mila pezeta kobratzen bazuen ehuneko hamarra Gipuzkoako Arbitro Federazioari eman behar zion, baina jantzi behar zuten elastiko beltzak berak erosi eta jostunari egokitzeko

eman behar izaten zizkion.

Hemengo Lehia Batzordearen aldetik, arbitroenganako babes handiagoa eta bertako futboleko azaltzen den begirune falta gainditzeko hezkuntza garatu beharra aldarrikatzen du. Ikusle eta jokalarien aldetik kexa ttikiena-

ren zantzurik gabe jokatzen diren futbol ingelesaren ereduaren mireslea da. Bere us-tez, jokalaria batek bere burua gezurretan botatzen badu, ez du arbitroa engainatzen, ikusleak eta futbola bera baizik.

Gaur egun, ez du korri egiten lagun artean Berazubiko Estadioan, belauna dela eta, baina bere neurriko kirola egiten jarraitzen du Usabal Kiroldegian. Duela hamabost urte, bostehun lagunek eginiko agur ekitaldian eskainitako oroigarri ugari du bilduta ganbaran: arbitrajearen maisu modura berak futboleko utzitako arrastoa sakona izan da.

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)**Nola murgildu zinen arbitraje munduan?**

Martuteneko txapelketa batean hasi nintzen arbitratzen. Bertan zegoen Bigarren Mailako Garcia Jaime izeneko arbitroak Arbitroen Kolegioan sartzera gonbidatu ninduen. Futbolearen aritu izanaren abantaila nuen. Gaztetxoan nintzen eta gustukoa nuelako sartu nintzen.

Nolakoa izan zen goi mailako arbitroa izateko ibilbidea?

Jende askoren esku dago igotzeko aukeratua izatea, eta nik igotzeko zorzea izan nuen. Gipuzkoako Kolegiotik Bigarren Mailara pasa nintzen. Bertan bost urte egin ondoren, 1980an, Guruzeta ospetsuak jarraitu ezin zuela eta, bere lekua hartu nuen Lehen Mailan.

Gogoan duzu lehenengo mailan zuzendu zenuen lehen partida?

Valladolid eta Sevillaren arteko partida izan zen. Andaluziarrek huts eta hiru irabazi arren oso ongi ateratu zen dena. Valladolideko zelai ona izan da beti.

Proba bereziren bat gainditu behar izan zenuen maila horretara iristeko?

Beharrezko puntuazio bat lortuta igotzen da mailaz. Baina proba fisikoak ere pasa behar izan nituen, ez gaur egunekoak bezain gogorrak. Guk ez genuen ezer kobratzen eta gaur eguneko arbitroak ia profesionalak dira. Badira arbitrajeko dedikazio osoa dutenak, bere presatzaile fisiko eta guzti. Oso ondo iruditzen zait hori.

Nola uztartzen zenituen lana eta arbitro izatea?

Hamar mila pezeta ordain-

tzen zizkiguten lehenengo mailan. Honen %20 Gipuzkoako Kolegioari eman behar genion. Arbitro Kolegioa saldu zutenean neure buruari hala esan nion: *Makina bat diru eman diot!* Agente Komertzial modura familia mantendu behar nuen. Nire lanbidea denbora aldetik askeagoa da, baina kide batzuk oso larri ibiltzen ziren arbitrajea eta lana lotzeko: udako opor guztiak arbitratzeko hartzen zituztenak ere baziren. Hura bai zela zaletasuna, hura!

Nola definituko zenuke zure arbitratzeko era?

Nire belaunaldiko arbitroen artean, arbitrajearen katedra ezarri nuela esaten didate: maisua deitzen didate. Ez nuen protesta ttikienarik onartzen zelaian. Bazirudien nire gorpuzkera sendoak ere zelaian bere eragina zuela. Nire araua errespetatua izatea zen. Nire marrazainak errespetatuak izateak lehen-tasun osoa zuen. Jokalariak zelairatutakoan Urrio bertan zela eta, bazekiten erne egon behar zutela. Kide batzuk asko sufritzen zuten prentsan bere aurka zerbait ateratzen zenean. Nik ez nion kasurik egiten guzti horri.

Zein ezaugarri izan behar ditu arbitro on batek?

Lehenik, nortasun handia izan behar du; bere tokian egoten jakin.

Bestetik, gaitasuna eduki behar da: Arbitroak psikologo paperean ere jokatu beharra dauka: Partida ongi bada eta horia merezi duen sarrera bat ematen bada, utzi egin beharko litzateke; aldiz, partida berotzen hasten bada, txartela ateratu beharra dago bortizkeria mozteko. Hasieratik, partida ulertzen jakin behar du arbitroak. Gaur egun, arbitroentzako presta-

keta berezituak daude, INEF-ekoek eskainita. Guk ez genuen horrelakorik.

Zertan aldatu da arbitrajea zure garaitik hona?

Ia profesionalak dira egun. Urtean 96.000 euro gordin irabazten dituzte. Erregionaleko arbitroetatik hasita janzkera osoa ematen diete. Oso ongi iruditzen zait, eh! Arbitroa aintzat hartu beharra dago. Saldoko elastiko beltzak neronek erosi eta emazteak edo Martuteneko jostundegi batean ertz zuriak jarrita ibiltzen nintzen. Gaurko elastiko horiak izan beharrean, arbitroaren kolorea beltza zen orduan. Lagun on ugari egin nituen eta arbitrajeaz asko disfrutatu nuen.

Ba al dago arbitroen kromorik?

Garai batean ezagutu nituen, bai. Baina nire ustez arbitroaren irudia indartzeko, arbitroek Lehiaketa Batzordeetatik babes handiago izan beharko lukete. Jendea FIFAz eta UEFAz kezkatzen da, baina batzorde horien-gandik arbitroak babes osoa izaten du. Baina hanka sartuz gero, ondorioak ere berehalaxe jasoko ditu. Ez da hemen bezala arbitroa bi partidarako kentzen; agian, mailaz jaitsiko dute. Hemen ez bezala, epaile batek jokalaria kanporatzen badu, bi erakunde horiek arbitroari babes osoa emango diote. Hemengo Lehiaketa Batzordeen jokaera katxondeo hutsa da.

Zergatik aukeratzen du gazte batek futboleko epaile izatea?

Orain ez dakit zergatik; agian diruagatik. Lehen, afizioagatik izaten zen. Gure garaian, gazteak izanik, bi mila pezeta oso onak ziren guretzat, baina diruagatik hasten zirenak hiru hilabete ere ez zituzten egiten. Arbi-

troa futbolaren ezinbesteko osagaia da. Futbola eta arbitrajea gustatu egin behar zaizkizu. Lehengoan, Usabalgo langile bat borondate hutsez arbitratzen ari zela, hamaika urteko mutilak, aurkako entrenatzailea, eta gurasoak sartu ziren berarekin. Mehatxuak eta irainak entzun zituen. Giro horrekin oso zaila da gazte bat arbitratzen hastea. Arbitrajearen arazoak hezkuntzarekin du zerikusia.

Egoera larririk bizi izan al zenuen?

Gorriak ikusitakoa naiz. Poliziaren jeep-etan ateratu izan naiz... Helikopteroz ateratzea besterik ez zait falta izan. Behin igoera jokoan zegoen partida bat zuzentzea egokitu zitzaidan Haron; preferente mailako Haro eta Panplonaren artekoa. Realean ibili zen Satrustegik sekulako gola sartu zuela gogoratzen dut. Bukaeran errioxarre 0 eta 3 galdu zuten. Amaierako txistua jo ondoren, ikusleen artean pertsona bat korrika inguratu zitzaizgun, gure ustez ez asmo onarekin. Halako batean besotik heldu eta pozik egon behar nukeela esan zidan, Harok partida etxean galdu eta egurtua izan ez zen arbitro bakarra nintzela eta.

Nola irabazten du errespetua arbitro batek?

Denborarekin. Arbitroak momentuan ikusten duena momentuan adierazi behar du, eta kitto! Ezin zara zalantzetan ibili. Telebistan hogeitaz aldiz ikusi eta batzuetan ez dakizu zer izan den. Teknologia guztiak onak dira arbitrajeko. Federazioan entzun nuen lehengoan ate atzean laguntzaile bat kokatzeko asmoa dagoela. Arbitroak partida amaitutakoan badaki arbitraje ona egin duen edo ez.


Guardia Zibilekin atera behar izan dudan batzuetan banekien arbitraje oso ona egin nuela.

Arbitrajea zailtzen zuenik bazen?

Landaburu, Garate, Quinik asko errazten zuten arbitratzea. Hugo Sanchezekin arbitratu behar nuen aldiro banuen liskarren bat. Epaitegietara ere jo behar izan nuen. Ultrek heriotz mehatxuak egin zizkidaten...

Jokalariek ez al dute kexa gehiegi egiten?

Bai, horixe! Nik futbol ingelesa asko ikusten dut. Lehengoan Manchester United eta Liverpoolen artekoan, kanpokoek bat eta lau irabazi zuten. Masajista ez zen behin ere sartu zelaian. Liverpoolen aurka penaltia jo eta atezaina kexarik gabe ateko leerroan kokatu zen. Etxeko jokalarik bat kanporatzean berri, txintik esan gabe utzi zuen zelaia. Arbitroak erabaki zailak hartu behar izan zituen. Hau Espainiako ligan gertatu izan balitz, ez dut usate jokalariek horrela jokatu zutenik. Hezkuntza arazoa da. Athletic eta Real Madriden arteko partida ikusten hasi eta lehendabiziko minututik arbitroa engainatu nahian ibiltzen dira hogeita bi jokalariek. Baina okerrena zera da: jokalariek ez duela epailea engainatzen, ikusleei eta futbolari berari egiten dio iruzur. Premier Leaguen jokalariek arbitroekin kolaboratu egiten dute. Joko garbia egin behar da. Futbol ikusle-



"Jokalariek ez du arbitroa engainatzen, beste jokalariek, ikusleak eta futbol osoa engainatzen du".

go ingelesa kirolzaleena da. Ez dute paper bat ere botatzen. Gehienez, ohio batzuk egingo dituzte.

Arbitroek talde handi eta ttiki-kin berdin jokatzen al dute?

Bai, noski. Real Madriden zelaian, etxekoan aurkako penaltia adierazteak beldurra ematen dionak ezin du lehen mailako epailea izan.

Arbitratroaren lana bideratu al daiteke bulegoetatik?

Nik ez dut inoiz ikusi arbitroak bulegoetatik zuzentzen. Plaza jauna madridista zela esaten zuten, baina bere garaian Athletic eta Realak irabazi zituzten ligak. Hor dago froga... Erabaki oker eta zuzenak orekatu egiten dira.

Nazioarteko epaile modura ere ikusiko zenituen bitxikeriak...

AEBeko mundialerako Honduras eta El Salvadorren arteko norgehiagoka zuzentzea egokitu zitzaidan. Giroa

beroa zen, ejerzitoak ere eskua sartu behar izan zuen, pentsa! Hala ere, jokalariek oso ongi hartu ninduten. Txartelik gabeko partida garbia izan zen. FIFako ordezkari batek zoriondu egin ninduen, zegoen giroarekin ezer ez zelako gertatu. Bertan arbitro prestatzaile modura lan egiteko fitxatu nahi izan ninduten, diru eskaintza nahiko ona egin zidaten gainera. Baina ezezkoa eman nien. ■

**CDI**
Informatika
Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak
GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

COMERCIAL
IASASTU
XXI S.L.
INDUSTRIARAKO
HONIDURAK
Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462

METAL'KO
Mertzeria eta
konponketak
Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA

**AROSTEGIETA**
Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

ANOETA >> EKAINARAN 5EAN IZANGO DA MEMORIA DANTZAN

Arbola genealogikoa

Guk ere gure arbola genealogikoa akordatu nahi dugu eta akordatu nahi dugulako, Anoetarrok, gure habia sorburutzat hartuta, gure herriaren arbola genealogikoan atzera egiten hasi ginen duela hilabete batzuk. Bide horretan atzera eginez, bost adarreko arbola osatu dugu. Arbola horren adarretako batzuk oso antzinakoak dira, besteak, aldiz, berriagoak. Baina adar guzti horiei esker idatzi ahal izan du Anoetak bere historia, denek utzi dute aztarna gure herriaren memorian. Eta, horregatik, adarrez adar, mendez mende, gure habiatik begira jarrita, kukuok memoria dantzan jarri dugu.

Arbola horren lehen adarra, zaharrena, karlisten eta liberalen odolez eta sufrimenduz jaio zen. Karlista eta liberalen arteko borrokek eragina izan zuten gurean ere. Borroka haien ondorioz, 1872 urte inguruan, gertakari latza gertatu zen gurean. Mendekua bidela-gun txarra da eta horren ondorioz, Anoetak eta anoetarrek egun berean galdu zituzten herriko alkatea eta apaiza. Urte hartan, Jakas izeneko alkatea zuen Anoetak. Liberalekin ongi moldatzen zen eta Santa Kruz apaiza salatu zuen. Salaketa hura zela eta, karlistek Jakas erahil zuten eta liberalek, apaizak erahilketa harekin zerikusia izan zuelakoan, herriko apaiza. Hala ere, herriak aurrera egiteko modua aurkitu zuen. Zuhaitzak lorez jantzi ziren berriz eta gure arbolari ere adar berriak atera zitzaizkion.

Bigarren adarrak, hainbat urtetan jende askok ez ikusia-

rena egin badio ere, herriaren eta herritarren memorian il-tzatuta darrai. Ez da erraza izaten, askok itzalpean mantendu edo ahazturara kondemnatu nahi dutena gogoratzea eta gogoraraztea. Baina, izan dira lan horretan amore eman ez dutenak eta haiei esker iritsi zaigu, guri ere, urte haietako gertakarien oihartzuna. Urte haietan haur askok atzean utzi behar izan zituzten beren herriak eta familiak. Arma hotsak ixildu zirenean haur haietako asko etxera itzuli ziren arren, beste batzuk erbesteko herri haietan antolatu zuten beren bizimodua. Hala ere, ez zituzten beren herriak, etxeak, familiak ahaztu eta urteetan aurrera egin ahala, erbestea utzirik memoriaren sustraiak errotuta zeuden gunera itzuli ziren. Bidaia hartan, aurrekoan bezala, haur joandako haiek bazekiten atzean zer uzten zuten. Zer aurkituko zuten herri-ara itzultzean?

Hirugarren adarra bi kulturen, bi hizkuntzen ahaleginen ondorioz jaio zen. Askok izan ziren gure herrira lan bila iritsi zirenak baina, industrietako keaz gain, habia berri bat ere aurkitu zuten. Hasiera guztiak izaten dira zailak; hizkuntza eta kultura desberdinek ezinbestean egiten dute talka. Ohi-turak, jolasak, heziketa, aisialdia... Etorri berriek eta bertakoez bizimodu desberdinak zituzten. Hala ere, desberdintasun haien ondorioz sortu ziren harresiak bota ondoren, gure arbolaren enborra sendotu egin zen.

Laugarren adarrak, aldiz, herriaren etorkizuna bermatzen lagundu zuen. Anoetak bazuen iragana, bazituen iraganeko adarrak. Baina, etorki-

"Gure arbola genealogikoak akordatzen naiz enborra nahiko kaltetua, adarrak zimeldurik, hostoak idorturik. Baina, txori habiaren bat."

J. Sarrionaindia, Akordatzen (2004)

Ainitze Etxaniz
Eneritz Iraola

Altoa kimu berritzen

Ekainaren 5ean, ostirala,
22:00etan
Anoetako kiroldegian

memoria dantzan

Herri osoak parte hartu du Memoria Dantzan ekimenean.

Egilea: Ainoa Barandain.

zuna izatekotan, adar berri bat behar zuen herriak, herriko haurrak herrian bertan eta euskaraz hazi eta hezte ahalbidetuko zuen adar sendoa: ikastola. Guraso, gazte, heldu, herritar guztien ahaleginaren eta lanaren ondorioz gauzatu zen amets hura. Kontzertuak, jaialdiak, lan askori esker izan bazen ere, jai giroan eman zituen lehen urratsak ikastola berriak. Oztopoak ugari izan ziren. Haizeak, euriak eta ekaitzek adar berria kolpatu zuten arren, urtez urte, belaunaldiz belaunaldi, indar berriz lortzen den adarra da laugarren hau.

Azken adarra, berriena, kimu berriz beteta dago. Herria bizi-bizirik dago. Musikak eta

dantzak kulunkatzen duten adarra da hau, oinak arin mugituz, iraganeko eta etorkizuneko pausoak uztartuz, geroari (eta iraganari) aurrez begiratzen diona. Bere iragana ezagutzen ez duen herriak ez baitu gerorik. Hau da kanpotik datozenek ikusi eta ezagutuko duten herria. Memoria dantzan jarriz aurrera egiten ikasi duena.

ANOETAN HASI ETA AMAITUKO DEN BIDAIA

Anoetak eta anoetarrek bide luzea egin dute gaur egunera arte; aldaketaz betetako bidea. Bide hori islatzen du ekainaren 5ean anoetarrok taularatuiko dugun ikuskizunerako egindako irudiak ere. Belarra,

asfaltoa, laia, indar elektrikoak, tren... Denek dute garrantzia anoetarren bizitzan eta denbora lineala bada ere, elementu guzti horietara behin eta berriz itzultzen gara.

Herri guztiek dute beren kolorea. Gurea, berdea zen erabat eta grisez margotu zen pixkanaka. Belarrak, soroeak eta baratzeak, asfaltoari leku egin zioten halaberharrez. Urteetan zehar laiaz, eskuz eta izerdiz landutako lurra egun batetik bestera antzutu, gogortu zen. Indar elektrikoak indar fisikoaren lekua hartu zuen. Hala ere, grisa ez zen herriko kolore bakar bihurtu eta, gaur egun ere, gure ingurura begiratzea nahikoa da kolore berdeak hor dirauela ikusteko;

tradizioa eta modernitatea soka beraren bi mutur direla nabaritzeko. Aldaketa guzti haien artean, tren hotsak ere iritsi ziren Anoetara eta tren ez zetorren hutsik. Bizimodu berri baten bila zetozenek, lehengo bizimodura itzultzea amesten zutenekin batera egiten zuten bidaia. Askorentzat erabat berria zen treneko leihotik ikusten zutena baina, beste batzuk, ordea, antzina atzean utzitako etxeen, kaleen, ohituren, bizimoduaren oihartzunak entzuten zituzten geltokira gerturatu ahala. Itzulera bidaia horietako bat aitzakiatzat hartuta, memoria dantzan jarri dugu. Igo zaitezte zuek ere trenera eta goza ezazue Anoetan hasi eta amaituko den bidaiaz. ■

MUSIKA >>> EKAINAREN 12RA ARTE LUZATUKO DIRA GRABAKETAK ETA IRAILEAN KALERATUKO DA DISKOA

Musika aniztasuna V. Martxaundin

Banan-bana, Bonbereneako estudioetik igarotzen ari dira Martxaundiren V. aldian izena eman duten taldeak. Aurreko edizioetan bezala, erantzun paregabea izan du ekimenak: 10 taldek parte hartuko dute Martxaundiren diskoan. Grabaketa lanak ekainaren 12ra arte luzatuko dira.

Erredakzioa

Euskaraz abesten duten musika talde hasi berriari bultzadaxo bat emateko asmoz, ondorengo eskaintza egiten du Martxaundik: Kantu bat kalitate onean grabatzea eta CD batean eskualdean eta eskualdetik kanpo hedatzea. Nahiz eta egun, kantu bat grabatzeko lehenengo Martxaundi egin zen urtean (1992) baino aukera gehiago eduki, eskaintzak interesgarria izaten jarraitzen du. Eskualdeko musika taldeen aldetik egitasmoak izan duen erantzuna ikusi besterik ez da egin behar horretaz ohartzeko:

10 taldek osatuko dute Martxaundi V. diskoa. Ekainaren 1ean hasi ziren grabaketak eta ekainaren 12ra arte luzatuko dira. Bonbereneako estudioan, Karlos Osinaga tekniko lanetan dutela ari dira lanok egiten. Diskoaren diseinua berriz Zigor Agirrezabalak egingo du. Grabaketa eta honen osteko prozesu guztia egin eta gero, irailean izango da diskoaren aurkezpena. Udazkenean zehar, egitasmoan parte hartu duten taldeen kontzertuak an-

tolatuko ditu Galtzaundik eskualdeko herri ezberdinetan.

MUSIKA ANIZTASUNAREN ISLADA

Martxaundi, egungo musika talde hasi berriek egiten duten musika motaren isla erabada. Lagin txiki honek erakusten du, musikari gazte gehientsuenek rock-aren esparrura jotzen dutela, baina honen barruan estilo eta iturri ezberdinetako musika jorratzen dute. Rock-az gain, Martxaundiren aldi honetan badira bestelako musika egiten duten taldeak.

Nekro talde tolosarra da

rock musika egiten duenetariko bat. Javi Navarro, Niko Navarro, Mikel Izagirre, Iker Zabala eta Iker Rojok osatzen dute taldea. **Potentor** taldea ere antzeko eremuetan mugitzen da; Nekro-ko bi partaidek parte hartzen dute proiektu honetan: Javi eta Niko Navarrok. Aitor Beldarrain eta Xabier Valverde dira beste bi kideak.

Tolosa eta Ibarako musikariek osatzen dute **Kantaflor** izeneko proiektua. Aitor Yarnoz, J. Manuel Alvarez, Anton Irastorza, Juanan Sanchez eta Josu Bazla dira partaideak. Heavy-rock bezala definitu dute euren estiloa.

Rock melodikoa egiten dute aldiz, **In De Kitxen** taldekoek. Aratz Elkoro, Roman Goenaga, Ander Lizaso eta Iñigo Orkaiztegi dira taldekideak.

Eneko Amondarain, Javi Flores, Jon Ezkerra eta Bitorr Cid-ek berriz, **Gargantas Desgarradas**, punk-rock taldea osatzen dute.

Bosgarren Martxaundik dakarren beste proposamenak **Inside** izena du: Post rock estiloan sailkatzen dute euren musika, Beñat Barandiaran, Iban Alzate, Mikel Larrarte eta Alex Arotzenak.

Metal doinuak ere ez dira faltako. **Kräken** taldea arduratuko da horretaz. Ibarra eta



MARTXAUNDI
5

Tolosako kideek osatzen dute: Miren Ceberio, Jon Ceberio, Julen Piris eta Julio Santos-ek.

Caligula taldea izango da proposamenik berritzaileena ekarriko duena. Txainis pop estiloko kantuak egiten ditu Xabier, Aidak, Nereak eta Sandra laukoteak.

Erromerietan entzuten den musika ere ez da faltako. Herrietako jaiak girotzen dituzten **Laket** taldeak parte hartuko du diskoan. Iñigo Muñoz, Jon Mari Beasain, Maitane Aierza, Aiora Urdangarin eta Zigor Sagarna dira taldekideak.

Azkenik, baina ez azkenak, Albizturtik datorren **Zesuma** taldeak ere trikitixa doinuak ekarriko ditu. Ander Malbadi, Izaskun Leiza eta Alberto Garzesen proposamena da hau.

Denak ari dira estudioko lanak burutzen, eta irailan eza-gutuko ditugu euren proposamenak. Galtzaundi Euskara Taldea, oso gustura dago Martxaundiren bosgarren aldiak izan duen erantzunarekin, eta lau urteren buruan VI. aldia antolatzeko prest agertu da. ■



Gargantas desgarradas



Inde Kitxen



Kantaflor



Kräken



Laket



Nekro




Potentor



Zesuma



Inside



Caligula



Uztailaren 1etik 30era bitartean (biak barne).

Ludotekaren Ordutegia
goizeko 9:00etik 13:00era

Izena emateko epea
ekainaren 1etik 15era

Prezioa
80€ haur bat, 130€ bi anai-arreba eta 160€ hiru anai-arreba
Igerilekuko prezioa: 15€.

Informazio gehiago
Galtzaundiren egoitzan 943 655 004
Nafarroa etorbidea, 6 behea - 20400 Tolosa

Ludotekako begirale izan nahi duzu? Deitu 943 655 004

Mahai tenisa, pin -pon joko

USABAL MAHAI TENIS TALDEAK BOSGARREN SA

Leire Zubeldia

2004. urtean sortu zuen Txema Armentia mahai tenis jokalariai Olaederra kluba. Villabonako kiroldegian dute egoitza nagusia. Lehenengo urtean inguruko ikastetxe eta kiroldegietan promozio lanak egiten ibili zen. Nahiko jende bildu zuenean hasi ziren lehiatzen. Klubean talde bat baino gehiago daude, eta horietako bat da Usabal Mahai Tenis taldea. "Tolosako kiroldegiak instalazio finko bat

Olaederra Mahai Tenis klubeko taldea da Usabal mahai tenis deritzona. Liga nazionalako bigarren mailan jokatzeko dute. Gustura daude egindako lanarekin: sailkapeneko bosgarren postuan amaitu dute. Orain, udarako mahai tenis torneoei begira ari dira entrenatzen. Usabalen aurkitu ditugu saioa egiten ari zirela.

eskaini zigun. Luxu bat da guretzat, beste kiroldegietan, mahaiak jarri eta kendu ibili behar izaten baitugu. Hori eskertzeko, liga nazionalako bigarren mailan lehiatzen den taldeari kiroldegiaren izena jarri genion", azaldu du. Estatu mailako ligan ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoko ligan ere parte hartzen dute klubeko jokalariek. Orotara 15 federatu dituzte: "Tolosa,

Ibarra, Alegi, Asteasu eta Hernani zein Urnietako jokalariai ditugu. Kategoriari dagokionean, abaraska osatuta daukagu, alebinetarik hasi eta beteranoak arte".

Lehen Tolosan bazen mahai tenis talde bat: Oargi taldea hain zuzen ere. Duela hamar urte desagertu zen. Txemak talde berri bat sortu zuela zabaldu zenean, Oargin aritzen ziren zenbait jokalaria hur-

bildu zitzaizkion berriro mahai tenisari heltzeko asmotan.

GUSTURA EGINDAKO DENBORALDIAREKIN

Olaederra klubarentzat, lau garren denboraldia izan da. Usabal Mahai Tenis taldeak berri bigarren urtea egin du liga nazionalako bigarren mailan. Sailkapen nagusian bosgarren amaitu dute. Emaitza ona da hori iazkoarekin alde-



Usabal kiroldegiko goiko pistan dute instalazioa mahai tenis jokalariek.

KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16 943 425 886 943 420 187	Garibai, 8 943 420 259 943 430 947	Rondilla, 11 943 670 615 943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak
etab.

Arteka
ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

Da baino zerbait gehiago

LIGAKU DA LIGA NAZIONALEKO BIGARREN MAILAN

ratuz. “Nabari da esperientzia apur bat hartu dugula. Iaz, ia-ia kategoria galdu genuen. Aurten berriz, gustura aritu gara, lehiaketan barruraino sartuta. Oso gustura gaude”.

Liga amaitzearekin batera jarri dituzte datorren denboraldirako helburuak. “Nazional lehenengo mailara igo nahi dugu. Aurten bosgarren posturaino gerturatu gara, eta nire ustez, eskura daukagun lorpena da igotzea”. Nazional lehenengo maila eta gero, nazional ohorezko maila dago, eta kategoriarik gorenena, nazional super ohorezko maila litzateke.

Euskal Autonomia Erkidegoko liga aldiz, txanponaren beste aldean geratu da. Usabaleko jokalariek saillkapeneko azkenaurrenak izan dira, eta ziurrenik, datorren denboraldian erkidegoko bigarren mailan jokatu beharko dute. “Baina, euskal liga hasiberriak trebatzeko erabiltzen dugu, esperientzia pixka bat har dezaten, maila estatalera igaro baino lehen”.

Liga amaitu da, baina denboraldi ofiziala ekainaren amaierara arte luzatuko da. Udan, mahai teniseari jokatzeko jarraitu nahi duenak berriz, badu horretarako aukera. Usabal taldeko zenbait lagunek esaterako, Miarriz eta Hen-

daiako gau torneoetan parte hartuko dute laster.

MAHAI TENISA EZ DA PIN-PON-A

Txema Armentik bi gauza ezberdin bezala azaldu ditu mahai tenisa eta pin-pon jokoa. “Pin-ponean denok ibili gara, etxeko paretaren kontra edo mahai batean, liburu batzuk sare bezala jarriz. Baina mahai tenisa hori baino zerbait gehiago da”, dio. “Mahai tenisa, izugarriko arreta, erreakzio gaitasuna eta baldintza fisiko onak eskatzen ditu”. Kirol “zail” moduan definitu du, nahiz eta ahalegina eginez gero, denek jokatu dezaketen.

Mahai tenis partida batean, jendeak uste duenaren kontra majo izerditzen dela azaldu du Olaederra klubeko arduradunak. “Jokalariek profesional batzuen partida bat ikusi beharko litzateke mahai tenisa benetan zer den jakiteko. Munduko txapelketa batean, jokalariek ez dakit zenbat txandako partida jokatzeko duten, eremu txiki batean kilometroak ta kilometroak egin ditzakete”. Gainera, duela urte batzuk parduaren dinamika aldatu zuten, eta aldaketa horrek oraindik eta tentsio gehiago ekarri dio kirol honi: “Lehen 22 puntuko 3 joko jokatzeko ziren. Orain, 11 pun-



tutara dira jokoak. Bi akats nahikoak dira partida galtzeko. Kontzentrazio ahalmene gehiago eduki behar da”. Mahai teniseko jokalariek batek izan beharreko beste ezaugarri garrantzitsua da hori: Kontzentrazio ahalmena. “Fisikoki ondo egon behar duzu kirol honetan lehiatzeko, baina mahai tenisa, kirol mentala da”.

Armentiak jendea animatu nahi du gutxienez proba egin dezaten. “Usabalen bertan bi mahai daude jokatu nahi duenarentzat. Harreran palak eskatu besterik ez dute egin

behar”. Jolastetik, jokatzera igaro nahi dutenei, hau da, lehiatu nahi dutenei, berarekin harremanetan jartzea eskatzen die Txemak. 653.73.46.12 telefonoan edo txemita@telefonica.net helbide elektronikoaren bidez jar zaitezke berarekin harremanetan. Neskei deialdi berezi bat egiten die: “Alebin mailako neska ugari ditugu, baina gero futbolera ihes egiten dute, eta oraingoz ezin izan dugu nesken talderik osatu”. Amaitzeko, ohartarazpen egin du: “Proba egiten duena engantxatu egiten da”. ■

ZETA^S_L

MUNTAKETA ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219

TG

GORRI

**Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak**

Apatta industrialdea. Baratzondo D 26. IBARRA
Tel.: 943 671 590. Faxa: 943 673 916

Alaia

kafetegia

Gudari kalea, 10 - TOLOSA
Tel.: 943 652 643

Ekainaren 5etik 19ra arteko hitzorduak

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat: erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

ERAKUSKETAK

ARANBURU JAUREGIA

»» Ekainak 27ra arte: Ruiz de Eguinoren pintura eta eskultura erakusketa.

»» Ekainaren 18tik uztailaren 4ra: Kultur tailerretako ikasleen lanak: pintura, zeramika, eskulanak, patchwork, ehoziriak, argazkigintza...

ZINE FORUM

LEIDOR

»» Ekainak 5: *El vuelo del globo rojo* filma 19:30ean eta 22:30ean.

»» Ekainak 11: *La condesa descalza* 19:15ean eta 21:45ean.

»» Ekainak 18: *Dejame entrar* 19:15ean eta 21:45ean.

ZINEMA

LEIDOR

»» Ekainak 7: *Ponyo en el acantilado* haurrentzako filma 17:00etan. *Nunca es tarde para enamorarse* 19:30ean. *Sicko* 22:00etan.

»» Ekainak 8: *Sicko* 20:30ean.

»» Ekainak 12: *Angeles y demonios* 22:30ean.

»» Ekainak 13: *Séraphine* 22:20ean.

»» Ekainak 14: *Vamos a la luna*, haurrentzako filma 17:00etan. *Angeles y demonios* 19:30ean eta 22:00etan.

»» Ekainak 15: *Séraphine* 20:30ean.

MUSIKA

LEIDOR

»» Ekainak 6: Dulce Pontes-en emanaldia, Mundua Tolosan zikloaren baitan, 20:30ean.

BONBERENEA

»» Ekainak 5: *Etsaiak* eta *Turtleisland* (japon) taldeen kontzertua 22:30ean.

»» Ekainak 6: *Elurretan* eta *Ornamento y delito*. 22:30ean.

ANOETAKO KORPUTS JAIAK

»» Ekainak 5, ostirala: 22:00; Kiroldegian, memoria dantzan ikus-entzunezkoa.

»» Ekainak 6, larunbata (kuadrilen eguna): 09:00: XII. eskuzko pilota herri txapelketa. finalak. udal pilota eskolak antolatuturik. 11:00: kuadrilen arteko I. batel txapelketa errota poligonoan. 12:30: kuadrilen eguneko txupinazoa eta kalejira. 14:30: kuadrilen bazkaria frontoian. 17:00: kuadrilen arteko jokuak plazan. 19:00: zo-zongo batukada taldearen kalejira herrian zehar. 21:00: kuadrilen afaria frontoian. 23:00: laketa musika taldearen emanaldia plazan.

»» Ekainak 7, igandea (dantzari txiki eguna): 10:00etatik aurrera, goiz osoa, baseritarren azoka plazan, anoetako aht gelditu! elkarlanak antolatuturik. talogileak eta dultzaineroak egongo dira. 10:30: ikaztegieta, irura, tolosa eta anoetako dantza taldeen kalejira. 12:00: dantza taldeen emanaldia plaza txikian. 16:00: judo eta gimnasia erritmikako ikasleen emanaldia kiroldegian. 18:00: loatzo musika eskolako kontzertua plazan.

»» Ekainak 10, asteazkena: 18:55: herriko txalapartariak kukuaren etorrera

iragarriko duten plazan. 19:00: herriko plazan jaien hasiera: txupinazoa, kukuaren jaitziera eta ume eta gaztetxoek danborrada, "lagunak" txarantxarekin. ondoren, loatzo musika eskolako trikitilarien kalejira. 19:30: sardina jatea plazan. 23:00: erromeria elustondo anai-arrebekin plazan.

»» Ekainak 11, osteguna: 10:30-13:30: ume eta gaztetxoentzako parkea plazan. 13:30: ume eta gaztetxoentzako bazkaria frontoian. zatoz mozzorroturik! 17:00: patxin eta potxin pailazoen emanaldia plazan. 18:00: txokolate jatea plazan. 18:30: buruhandi eta erraldoien kalejira herriko trikitilarietara. zatoz mozzorroturik! 21:00: kostila jatea frontoian. 23:00: erromeria izer eta alabierrekin plazan.

»» Ekainak 12, ostirala: 11:00: herriko jubilatuen arteko toka txapelketa plazan. 16:30: buruhandi eta erraldoien kalejira. 18:00: ume eta helduen play-back plazan. 22:00: pala partida mistoak eta afizionatuen pilota partida frontoian. 00:00: lauroba eta vendettaren kontzertua plazan.

»» Ekainak 13, larunbata: 11:00: herri lasterketa ume, gazte eta helduentzat. 12:30: buruhandi eta erraldoien kalejira herriko txistularietara. 15:30: mus txapelketa. 16:30: txirrindulari lasterketa, (alebin eta infantil mailakoak). 18:00: gazteen kalejira 19:00: sagardo dastaketa, txorizo egosia eta gazta pintxoekin. 21:00: herri afaria frontoian. 23:30: gazteen dantza plazan. ondoren, kupela erromeria taldea plazan.

»» Ekainak 14, igandea: 10:30: umore ona ordiziako jubilatuen abesbatzaren emanaldia elizan. 11:00: gorritiren fes-

TINDATEGIA



Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618



kutxa



ITURRALDE
INDUSTRI-HORNIDURAK

Donostia etorbidea, 17 - Tolosa
Tel.: 943 655 865

Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Ikastaroak

Ikastaroak	Orduak	Hasiera data
Emaweb (emakumeentzako internet ikastaroa)	20	2009-06-08
Internet + e-adminitrazioa	20	2009-06-08
Antzerkia naturan	20	2009-06-12
Zuhaiztien analisi integratua (IBA metodoa)	20	2009-06-16
Bat-bateko mezularitza	4	2009-06-17
Arte tailerra	25	2009-07-06
Sormen dantza	25	2009-07-06

Ikastaro hauei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero edota bestelako ikastaroen informazioa interesatu izanez gero, jar zaitez harremanetan:

Webgunea: www.ikastn.com

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia

Kokapena: Tolosaldea GMLH Institutua, Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678

Posta-e: info@ikastn.com

www.ikastn.com

tibala: zezentxoak eta ponyak plazan. 11:30: paleta txapelketako finalak frontoian, 12:00: buruhandi eta erraldoiden kalejira herriko txistulariekin. 13:00: omenaldia javier sarasari elizan. 18:00: herri kirolak: arozetxea ondoko belazean. ondoren, erromerian plazara. 19:30-21:00/ 23:00 eta tik aurrera: agirre anaiak taldearen emanaldia plazan.

IBARRAKO GAZTE FESTAK

» Ekainak 12, ostirala: 19:30; txupinazoa (festen hasiera) ondoren mulambo perkusio taldearekin kalejira Ibarra sarreratik abiatuta. 21:30; barrikotea gaztetxen (bakoitzak bere afaria ekarri behar du). 23:00; kontzertuak plazan: des-kontrol + desakato, tartean ekitaldia

- Ekainak 13 larunbata: 11:30; ume jokua plazan. 16:30; umeentzako ikuskizuna plazan. 17:00; mus txapelketa sendi ekintzan. 18:00; tortillada eta txokolatada txoznan. 23:00; kontzertua plazan emon taldearekin. Ondoren unsain-ekin erromeria. 00:00; atarrabiko gas taldearen ikuskizuna.

- Ekainak 14 igandea: 12:00; kalejira herriko trikitilarien laguntzarekin. 14:30; gazte bazkaria xepan (txartelak aurrez erosi behar dira atarin) bazkalondoan ere kalejira. 18:00; "kea" emanaldia plazan. 19:00; loatzo musika eskolaren emanaldia plazan. 21:00; kontzertua gaztetxean: ze esatek!

Guardiako farmaziak

EKAINA

- Ostirala, 5**
Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
- Larunbata, 6**
Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
- Igandea, 7**
Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
- Astelehena, 8**
Tolosa M^e Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
- Astearte, 9**
Olarreaga J. (korreo kalea, 2) Tolosa
- Asteazkena, 10**
Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa
- Osteguna, 11**
Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa
- Ostirala, 12**
Ugarte M^e Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Larunbata, 13**
Olarreaga J. (korreo kalea, 2) Tolosa
- Igandea, 14**
Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa
- Astelehena, 15**
Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
- Astearte, 16**
Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
- Asteazkena, 17**
Tolosa M^e Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
- Osteguna, 18**
Olarreaga M. (Marin J. Iraola, 10) Tolosa
- Ostirala, 19**
Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa

Telefono interesgarriak

- Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur**
Osasun zentroa 943 653 212
- Altzo**
Medikua 943 654 737
- Anoeta-Aikiza-Hernialde**
Medikua 943 652 339
- Baliarrain**
Medikua 943 889 003 (asteazk.)
- Berastegi-Elduain**
Medikua 943 683 361
- Bidegoian**
Medikua 943 681 134
- Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu**
Osasun etxea 943 672 411
- Ikaztegieta**
Medikua 943 653 329
- Irura**
Osasun zentroa 943 690 720
- Tolosa**
Anbulatorioa, larrialdiak 943 650 931
San Esteban, hitzordua 943 006 800
Gernikako Arbola, hitzor 943 006 900
Amarozko dispensarioa 943 672 637
Asunzion klinika 943 675 799
(larrialdiak) 943 675 390
San Kasma San Damian
genitrikoa 943 672 932
Udalzaingoa 943 675 858
Ur eta Argia (Tolargi) 943 650 016
Ur zerbitzuak (aberiak) 639 352 156
Iurreamendi egoitza 943 670 325
Larrialdiak, Suhiltzailak 112
DYA 943 672 536
Gurutze Gorria 943 674 888
 943 651 425
Ertzaintza 943 673 022
Tolosa Gasa 943 675 320
- Lizartza**
Medikua 943 682 077
- Orendain**
Medikua 943 655 595
- Oreka**
Medikua 943 682 228


MENDIZABAL
abeltzaintza

Baserriko haragia salmenta zuzena
686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa

www.baserrikoaharagia.com
Mendizabal Baserría
20.248-Arama (Gipuzkoa)

Joseba
Iturgintza
600 561 782

Iturgintza • Gasa • Berokuntza


URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

Muxu- -truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean doanik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

LANA

- **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**
- **Hortz protesioa** eskaintzen da laborategian edo auxiliari lanetan aritzeko. **671 44 66 15**

ETXEBIZITZA

- **Etxebizitza salgai** izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**

SALGAI

- **Kotxe bat salgai** BMW 330D full equippe 18.000 euro. 629 52 51 50.
- **Kotxe bat salgai** (urte 1) 14.500 km. Opel Meriva Cosmo 667 232 015
- **Artzai txakurra salgai** 617 863 669
- **Spaniel txakur kumea salgai** 678923512
- **Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km) salgai** 617863669
- **Espace bat** saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- **Kangoo bat salgai** (70.000 km) **Montesa motoa** salgai. 617 863 669
- **Pottoka kalifikatuak salgai** (kumeak egitekoak) **Txakurkumeak** salgai (pins-txer arrazakoak). 645 703 634
- **Haur jaio berri batentzat behar diren gauza gehienak salgai** (aulkiak, hama-ka, seaska,...). 653 733 675

HOROSKOPOA

EKAINAREN 5ETIK 19RA BITARTEKO AURREIKUSPENA



ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Etxe batekin liskarrak izango dituzu. Zuen haserreak familia osoan izango du eragina. Ekaitza baretuko duen berri on bat jasoko duzue ordea. Tentuz ibili edaten duzun urarekin.



TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Apain ibiltzeko sufritu egin behar da, baina horrek ez du esan nahi azala kiskali arte eguzkipean egon behar duzunik. Babestu ongi azala eta estali burua ideiak urtu gabe.



GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Aspaldiko esperientziak biziko dituzu berriro. Horrek biziberritu egingo zaitu eta gazte sentiaraziko. Festako erregina izango zara, munduko zilborra. Zure hilabetea izango da hau.



CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Baten bat zu mindu nahian dabil. Ez du lortuko zure ideiekiko leial jokatzeko baduzu. Bestalde, ez zaizu komeni mendekua hartzea, usteldutako paretak bakarrik erortzen dira.



LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Espero ez duzun pertsona batek huts egingo dizu. Esperientzia hau eskarmen-tu gisa hartu beharko zenuke. Benetako lagunak gutxi batzuk besterik ez dira.



VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Espero ez zenuen diru-sari mardul ba jasoko duzu. Horoskopoak gordetzea gomendatzen dizu, aurrerago izango dituzun gastuak estaltzeko. Aspaldi ikusi ez duzun lagun baten bisita.



LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Azterketak gainditu nahi badituzu, ikas-teko egutegi bat egin eta berau betetzen saiatu behar duzu. Liburutegia ez da ikasleku ona, lagun gehiegi. Bakarrik egotea komeni zaizu.



SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Kurtso amaierako afaria une egokia izan liteke sentitzen duzun guztia esateko. Argi utzi iezaiozu, beste pertsona horrekin izan zenuen harremanetik ez dela ezertxo ere gelditzen. Izarrak alde dituzu.



SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Egindako lanak izango du bere saria. Zure unea izan beharko lukeen arren, bera da zure arreta behar duena. Ospatuko duzue beste batean. Hartu txanda dentistarenean.



CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Denbora asko igarotzen duzue elkarrekin. Ondo etorriko zaizu lagunekin parranda bat botatzea. Gainera, eurekin harremana mantentzea komeni zaizu. Jende berria ezagutzeko aukera.



AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Osasun arazo batek elikadura zaintzera behartuko zaitu. Horregatik, denbora gehiago igaroko duzu sukaldean. Orain arte ezagutzen ez zenuen hobbi-ya deskubrituko duzu.



PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Zure ideiak inposatzea ez da bidea. Bakoitzak bere pentsamoldea du eta zuk ezin duzu hori aldatu. Onartu ezazu hori, lagunak galdu nahi ez badituzu.





berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



A P A I N D E G I A

Zure lehen zerbitzuarengatik
eskatu zure BEHERAPEN txartela!

Korreoa kalea 60 - 20400 Tolosa - 943 116 456

NUTRIZIO AHOLKULARITZA



AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGA

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

HELDUAK ETA HAURRAK

JANTZIAK
OSKI
oiñetakoak

Nafarroa etorbidea, 11
Telf. 943 651 264

3 hilabetetik 16 urte arte





Polígono Industrial s/n
20270 Anoeta
Telf. 943 652 843
943 652 845



RENAULT Espace
Motorea: 1.9 dci
Urtea: 2004
Kilometroak: 100.000

Prezioa: 17.000 euro



Megane Sedan Confort Expression
Motorea: 1,5 cc 105 cv
Urtea: 2007
Kilometroak: 6.000

Prezioa: 12.000 euro



Megane Confort Expression
Motorea: 1,5 cc 105 cv
Urtea: 2007
Kilometroak: 35.000

Prezioa: 12.000 euro



PT Cruiser
Motorea: 2.0 16v
Urtea: 2006
Kilometroak: 40.500

Prezioa: 8.300 euro

MODELOA	Km	DATA	PREZIOA
TWINGO II			
Twingo II Dynamic 1.2 75cv	800	2008	10.000,00 €
CLIO III			
ClioIII Confort Expression 1.5dci 85cv 5p	21.100	2006	11.500,00 €
ClioIII Emotion 1.5edci 85 Cv 5p	22.500	2008	11.900,00 €
ClioIII Emotion 15edci 85 Cv 5p	15.000	2008	11.900,00 €
ClioIII Con Exp 1.5dci 85cv 5p	9.800	2007	12.500,00 €
ClioIII Emotion 15edci 85 Cv 5p	21.000	2008	12.500,00 €
ClioIII Emotion 15edci 85 Cv 5p	13.700	2008	12.500,00 €
ClioIII Emotion 15edci 85 Cv 5p	6.572	2008	12.500,00 €
ClioIII Pac Dynamic 1.5dci 85cv 3p	10.000	2007	13.000,00 €
ClioIII Confort Dynamic 1.5dci 105cv 3p	100	2007	14.250,00 €
MEGANE			
Megane II Emotion 1.5 Dci 105 Cv 5p	37.500	2006	11.000,00 €
Megane II Expression 1.5 Dci 105 Cv 5p	23.300	2007	11.500,00 €
Megane II Lux Dy 1.9dci 130 Cv 3p	22.300	2006	13.000,00 €
Megane II Confort Dynamique 1.5 Dci 85 Cv 5p	22.500	2008	13.300,00 €
Megane II Luxe Privilege 1.9dci 130 3p	16.954	2006	13.500,00 €
Megane II Dynamique 15dci 85 5p	13.500	2008	13.500,00 €
Megane II Dynamique 15dci 85 5p	14.000	2008	13.500,00 €
Megane II Dynamique 15dci 85c 5p	19.200	2008	13.500,00 €
Megane II Confot Expression 1.5dci 105 3p	100	2008	14.000,00 €
MEGANE SEDAN			
Megane II Sedan	6.000	2007	12.500,00 €
LAGUNA II			
Laguna II Expression 1,9 Dci 120 Cv	150.000	2001	5.500,00 €
Laguna II Privilege 2.2dci 150cv	150.800	2003	9.000,00 €
Laguna II Privilege 1.9dci 130cv	105.000	2004	10.300,00 €
Laguna II Confort Expression 1.9dci 130c	25.100	2006	13.800,00 €
LAGUNA GRAN TOUR			
Laguna Gran Tour II 1.9dci Dynamic 120 Cv	117.586	2005	11.500,00 €
Laguna Gran Tour II 1.9dci Expression 120cv	65.700	2006	14.500,00 €

MODELOA	Km	DATA	PREZIOA
LAGUNA III			
Laguna III Dynamic 2.0dci 150cv	10.500	2007	24.500,00 €
SCENIC			
Scenic II Con Fot Expression 2.0dci 150cv	150	2007	17.000,00 €
GRAN SCENIC (7 EXELEKUREKIN)			
Gr Scenic II Expression 1.9dci 130cv	16.478	2007	17.500,00 €
KOLEOS			
Koleos Dynamic 2 2.0dci 150cv 4x2	19.850	2008	24.900,00 €
Koleos Privilege 2.0dci 175cv 4x4	KMO	2008	30.500,00 €
ESPACE IV			
Espace 1.9 Dci Expression 5p	110.000	2005	17.000,00 €
Espace 1.9dci Expression 120cv	27.500	2006	19.500,00 €
GRAN ESPACE IV			
Gran Espace Emotion 150 Cv	9.500	2007	26.900,00 €
KANGOO			
Kangoo Express Conf 15dci 65cv	126.200	2005	5.500,00 €
Kango Furgon Confort 70 Cv	122.000	2007	7.500,00 €
Kangoo Furgon II 1.5 D Confort	7827	2007	10.000,00 €
Kangoo Combi 4x4 1.6 16 V 95 Cv	18.000	2007	13.000,00 €
MASTER II			
Master Combi 6 Exerlekukoa	73.000	2005	13.000,00 €
Master Furgon Furgon 35 Ls 2.5 D	174.218	2006	12.500,00 €
Master Combi 6 Exerlekukoa	73.000	2005	13.000,00 €
BESTE MARKAK			
Astra 1.6 16v Enjoy 5p	86.000	2004	6.300,00 €
Berlingo Com. 2.0 Hdi Sx 5p	87.000	2004	8.000,00 €
Xsa. Picasso 1.8i 16v 5p	95.000	2004	8.000,00 €
Pt Cruiser 2.0 16v. Touring 5p	40.500	2002	8.300,00 €
León 1.9tdi Sport 5p	138.000	2004	9.900,00 €
Astra 1.9 Cdti Cosmo 5p	76.593	2005	11.500,00 €
Sandero	KMO	2008	11.000,00 €

bigarren eskuko 100 autotik gora aukeran
Kontsultatu beste motore eta ekipamentu aukerak. Unitate mugatuak.
Finanziazio aukera zabalak. Galdetu lasai.